

BIZTU DA, EZ DAGO HEMEN

Doinua: "Xarmagarria zera"

1

"Biztu da, ez dago hemen"

Bizirik dagonaren
bila hilobira?
Aingeruak deadar:
"Hemendik jagi da".
Zer poza sartzen jakun
bihotzen erdira!
ilunaren barruan
biziak distira.

2

*"Zer zabiltze hilen artean
bizi danaren bila?"*

Jesus berbiztu jaku
gaur hilen artetik,
hauxe sinisten dogu
guztien gaintetik.
Eskerrik asko, Jesus,
bihotz-bihotzetik,
zorionak eta aintza
guztion partetik!

3

"Bai, zentzunbakoak zareela!"

"Zentzunbako jentea"
Jesusek dinonez,
itxura onak baina
fruturik emon ez...
Hemen gaukazuz, Jesus,
Zuri eskerronez,
bete gaituzulako
zure zorionez.

4

"Ene Jaun eta ene Jainko!"

Tomasen: "Ene Jaun ta
ene Jaungoikoa!",
ikusitako gero
sinistutekoa.
Ikusteko sinistu
da gure kredoa,
Jesusentzat hori da
zorionekoa.

5

*..."eta bere eskuak jasorik
bedeinkatu egin ebazan"*

Aitarenagana doa
Seme on leiala,
zintzo bete ondoren
Aitak esan ahala.
Harrezkero guretzat
da zeru zabala;
anaiok, ez daukagu
aixkide makala!

6

"Ez zaituet umezurtz itziko!"

Zure azken agurra
da bedeinkapena,
honek betirako dau
bere luzapena.
Orain gure bideko
lagunik onena,
ge ro beti alkarraz,
ha bai zoramena!

A.Martzel